

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

2004ko TXOSTENA

aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

2004ko TXOSTENA

ARGITARALDIA:
2004 ko ekaina

ALE-KOPURUA:
130 ale

©
IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ibañez de Bilbao 28, 8.ª 48006 Bilbao
Tel.: 94 423 07 43 / Faxe: 94 423 59 00
www.ihobe.net

ARGITARATZAILEA:
IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

AZALAREN DISEINUA:
Canaldirecto

ITZULPENA:
Elhuyar

AZALAREN ARGAZKIA:
Archivo "Argazki" Eusko Jaurlaritza. Gobierno Vasco
Egileak: *Mikel Arrazola*

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-Iraunkortasunari buruzko 2004ko txostena

2004ko ekainaren 1a



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Edukia:

■	<u>Aurkezpena</u>	5
■	<u>2003ko urrats garrantzitsuak</u>	7
■	<u>Konpromisoak betetzea: (i) 5 ingurumen-xede</u>	9
■	<u>Konpromisoak betetzea: (ii) ezinbesteko 5 baldintza</u>	16
■	<u>2003ko txosteneko gomendioak betetzea</u>	23
■	<u>Bost erronka 2005erako</u>	25
■	<u>Azken oharrak</u>	28

Aurkezpena

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko **3/98 Lege** orokorrak, seigarren artikuluan, hau dio: “Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa batean islatuko da. Programa horrek lau urteko iraupena izango du, eta Eusko Jaurlaritzak onetsiko du eta ondoren Eusko Legebiltzarrera bidaliko da”.

Lege-agindua betez, Gobernu Batzordeak **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumen Esparru Programa (2002-2006) onartu zituen** 2002ko ekainaren 4an, eta epe luzerako ikuspegi estrategiko batean txertatu zituen Lurraren Goi-bileran –Rio de Janeiro, 1992an– lurralde bakoitzean garapen iraunkorreko estrategiak egiteko hartutako konpromisoarekin lotuta.

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (GIEIE) **bost ingurumen-xede eta ezinbesteko bost baldintza** jarri ditu, eta Euskal Administrazio Publikoak lehentasunez sustatu beharko ditu. Xede eta baldintza horiek Garapen Iraunkorrerako Europako Batasuneko Estrategian eta Ingurumenaren alorreko EBko Ekintzarako Seigarren Programan azaldutakoekin koherentzia gordez ezarri dira.

2002an jarri zen abian GIEIE, ingurumen-planifikazio, -legeria eta -kudeaketako hainbat jarduerarekin batera. Ingurumen-iraunkortasunari buruzko urteko **lehen txostenak** adierazi bezala, Estrategiak 2006rako markatutako konpromiso programatikoen % **80** abian jarrita edo bukatuta zegoen lehen urtea amaitzerako.

2003an Euskal Ingurumen Estrategia ezartzen jarraitu zuten. Jarraipeneko **bigarren txosten** honetan adierazten den bezala, 2006rako hartutako **konpromiso programatikoak** betetzeko urrats garrantzitsuak ematen ari dira; izan ere, aipatutako ehunekoa % **89**ra igo da. Konpromiso **kuantitatiboei** dagokienez, % 72 bete daitezkeen edo bete litezkeen sailetakoak dira, baina % 18 betetzea *zaila* da. 2003rako bete beharreko 39 helburuei dagokienez, guztiak programatikoak, 15 amaituta daude, 17 gauzatze-fasean daude eta 7 ez dira hasi hainbat arrazoiengatik. Taula hauetan datu horiek laburbiltzen dira.

Konpromiso-kopurua mugaegunaren arabera	Kuantitatiboak	Programatikoak	Guztira
2003a amaitzerako bete beharrekoak	-	39	39
2004rako	5	36	41
2005erako	-	7	7
2006rako	31	34	65
Betiko konpromisoak	8	21	29
Denbora-tarte osoa: 2002-2006	44	137	181
GIEIEak guztira (2002-2020)	82	141	223

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Eginda	
GUZTIRA	7	10	7	15	39
%	%18	%26	%18	%38	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Eginda	
GUZTIRA	15	64	27	31	137
%	%11	%47	%20	%23	%100
2003ko txostena	%20	%49	%21	%10	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Lortzeko aurrikuspena				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak 😊	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
GUZTIRA	8	8	24	4	44
%	%18	%18	%55	%9	%100

Horrenbestez, ezarritako xedeak erdiesteko egiteko dagoen bidea kontuan hartuta, ezinbestekoa da eragile guztien ahaleginak (administrazio publikoa, sektore pribatua eta herritarrak) bikoiztea aurreratze-erritmoa bizkortzeko.

2003ko urrats garrantzitsuak

Herritarrek gero eta gehiago kezkatzen dira ingurumeneko gaiet buruz. 2004ko Ekobarometro Sozialean ikusten den bezala, herritarren gehiengo handi batek dio ingurumen-arazoengatik nahiko edo oso kezkatuta dagoela (% 78tik % 86ra igo da), eta ia bost lagunetik batek uste du ingurumena babestea eta zaintzea **lehentasunezko helburua** izango dela 10 urte barru. Adierazgarria da talde hori izatea aurreko Ekobarometroko Sozialarekin alderatuta (2001) gehien hazi dena eta hirugarrena neurrian, helburu garrantzitsuena tirabira soziala eta politikoa izango dela pentsatzen dutenen ia maila berean eta enplegua eta aberastasuna sortzea izango dela uste dutenen atzetik.

Kontzientzia hori **informazioari** esker hedatu da, herritar gehienek ondo informatuta daudela uste baitute; hala, duela bi urtetik 11 puntu jaitsi da gutxi informatuta edo batere informatu gabe daudela uste dutenen ehunekoa. Ehuneko horiek Europako batezbestekoaren gainetik daude ia ingurumen-kontu guztietan, eta oso aurreratuta dauden herrialdeen –Austria, Suedia eta Herbehereak adibidez– antzekoak dira. Aurrerapen garrantzitsua da estrategiaren funtsezko alderdietako baterako, ekoizte-eredua eta kontsumo-eredua –txanponaren bi aldeak– ezin baitira aldatu gizarteak aktiboki, errebindikatiboki, parte hartu gabe.

Zalantzarik gabe, **gizakiak eragindako ingurumen-hondamendiek** (adibidez, 2003an *Prestige* hondoratzeak eragindako poluzioa, urteko erreferente saihestezina) arazo horien inguruan gizarteak gehiago kontzientziaztea bultzatu dute. Horren seinale da itsasoen poluzioa toki gailenenean egotea ingurumen-kezen edo informazio-mailaren sailkapenean, beste arazo garrantzitsu batzuen aurretik: ozono-geruza hondatzea, klima-aldaketa eta espeziak desagertzea besteak beste.

Aipagarria da, halaber, ingurumen-gaien pertzepzioa pixkanaka nola aldatu den; arazo intrintseko gisa kontentuetatik arazo zabalago eta konplexuago baten –adibidez, **iraunkortasuna– dimentsio** gisa ulertzerara pasa dira. Nahikoa finkatu gabe dagoen prozesua da, oraindik gizartean modu kontraesankorrean haritzen dena, eta, zalantzarik gabe, indartu behar dena.

Edonola ere, nabarmena da pixkanaka ingurumen-kezka Euskal Administrazio Publikoko eta, oro har, gizarteko maila guztietara zabaldu dela. Horri laguntzen dio herri mailan **Tokiko Agenda 21**ak egiteko prozesua gero eta udalerri gehiagotara zabaltzeak; GIEIEn berariaz sartutako helburuetako bat da hori, eta urteko egoeran modu positiboan nabarmentzen da. Egun, agenda egiteko edo ezartzeko faseren batean dauden 160 udalerriek EAEko biztanleen % 90 baino gehiago hartzen dute. Hori bezain garrantzitsuak dira, alde batetik, gero eta udalerri gehiago atxikitzea **Udalsarea 21** Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarera –2003. urtearen amaieran 37 euskal udalerri zeuden sartuta–, eta, bestetik, **Udaltalde 21**ak sortzea –eskualde bateko hainbat udalerri elkarrekin lan eginez udalerrietan Tokiko Agenda 21ak ezartzeko helburuarekin osatutako lan-taldeak dira–.

Agenda 21ak, 1992eko Rioko Goi-bileran azaldu bezala, ingurumenaren aldetik iraunkorra den garapen ekonomikoa eta soziala lortzeko programak dira, eta, *zeharka*, jarduera-eremu publiko eta pribatu guztiak ikuspegi oso batetik aztertzen dituzte. Kontzeptuaren **zeharkakotasunak** gure administrazioak kudeatzeko moduan aldaketak egitea eskatzen du.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren eremuan **ingurumen-ikuspegia** plan eta programa guztietan **sartzeko** indarrak areagotu dira. Horien artean, aipatzekoa da 2003ko irailean argitaratutako Dekretua, **Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren** (IIEB) prozedura arautzen duena. Hurrengo urteetan hura modu eraginkorrean eta intentsiboan aplikatzen bada, aurrerapen handia egingo da ingurumen-alderdiak eta, batez ere, eragin handiagoa dutenak –adibidez, nekazaritza, lurralde-antolamendua, garraioa eta industria– sektoreko politiken eta programen eremuetan sartzeko prozesuan.

Ildo honetan egindako beste urrats garrantzitsu bat 2010erako **Euskadiko Energia Estrategia** prestatzea da (jada aurreratuta dago). Estrategian energia aurreztearen, energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarriak erabiltzearen alde egiten da Kyotoko protokoloak ezarritako helburuak lortzeko. Hori dela eta, Energia Estrategiak zentral termiko tradizionalen ordeztasunak gasifikatzeko eta ziklo konbinatuko instalazioak ezartzeko eta energia berriztagarrietan parte hartzeko apustu tinkoa egin du, 2010ean sortzen den energia guztiaren % 12 horietatik lor dadin.

Ingurumen-helburuak zeharka sartzeko beste urrats bat Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eta beste sail batzuen artean egindako **sailen arteko hitzarmenek** ekarri dute: Etxebizitza (eraikuntza iraunkorrerako irizpideak ezartzea), Nekazaritza (nekazaritza- eta ingurumen-adierazleak garatzea), Industria eta Kontsumo (kontsumo iraunkorreko estrategia garatzea) edo Hezkuntza sailekin egindako hitzarmenek adibidez. Horrelako ekimenak administrazio publikoko maila guztietara zabaldu behar dira.

Garraioaren eremuan, Euskadiko ingurumeneko, ekonomiako eta gizarteko arazo handietako baten eremuan, urrats positiboak eman dira: **Euskadiko Garraio Agintaritza** sortu da abenduaren 15eko 5/2003 Legearen bidez, eta “**Euskal Trenbide Sarearen** legea” onartu berri da. Lehen organoa, *Garraio Iraunkorraren Gida Planean aurreikusia, kontsultarako eta koordinatzeko tresna gisa konfiguratzeko da garraioa eta baren azpiegiturak antolatze gaitan, garraio-sistema integratu bat modu eraginkorrean ezarri ahal izateko*. Bigarrenak Euskadiko trenbide-azpiegituren erakunde publiko kudeatzailea sortu du, ingurumen-inpaktu gutxiago eragiten duen garraio bide hori sustatzeko helburuarekin.

Azkenik, aurrera egiten du garapen iraunkorraren arazo dimentsio transnazionalaren pertzepzioak ere, herrialdeen eta eskualdeen arteko garapenerako lankidetzan zuzenean eraginez. **Garapen Iraunkorrerako Eskualdeetako Gobernuen Sarearen (nrg4SD)** bidez, dimentsio globalaren eta bertakoaren arteko konexioa ikus daiteke, eta 2003an hainbat lankidetzak hitzarmen sinatu dira Euskadi eta bost kontinenteetako eskualdeko gobernuen artean. Sarea 2002an Johannesburgen egindako goi-bileraren testuinguruan sortu zen, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoaren bultzadarekin. Antzeko asmoekin sartu da Udalsarea 21 Tokiko Ingurumen Ekimenen Nazioarteko Batzordean (**ICLEI**).

Enpresaren eremu pribatuan, pozik egoteko arrazoia da enpresaren erantzukizun sozialari lotutako jardunbide egokiek duten harrera ona eta hedapena, IZAITE Iraunkortasunaren Aldeko Euskal Enpresen Elkartea sortu zenetik. Eremu horretan, nabarmentzekoa da joan den abenduaren 31n 489 enpresak zutela **ingurumena kudeatzeko ziurtagiria** (ISO 14001 edo EMAS), 391 enpresak ingurumena hobetzeko **Ekoscan** programa egina zutela eta, modu hasiberrian bada ere, 6 enpresak bere egina zutela iraunkortasunaren konpromisoa **Iraunkortasunari buruzko Memoriak** eginda.

Konpromisoak betetzea: (i) 5 ingurumen-xede

Oro har, GIEIEk 2006rako hartutako bost ingurumen-xedeetarako markatutako helburuak betetzen egindako aurrerapena **positiboa** da. Bestalde, azken emaitzak lortzeko egindako aurrerapenak onak izatetik urrun daude, 2003ko Ingurumen Adierazleen txostenaren arabera.

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Eginda	
GUZTIRA	10	44	18	20	92
%	%11	%48	%20	%22	%100

2006rako konpromiso Kuantitatiboak	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak 😊	Daturik ez	
GUZTIRA	3	5	17	4	29
%	%10	%17	%59	%14	%100

2003ko abenduaren 31n, 2003. urtea amaitu baino lehen gauzatzeko ziren bost ingurumen-xedeetako konpromisoen % 44 exekutatuta zeuden guztiz. Bi kasutan bakarrik (% 13) artean abian jartzeko zegoen hartutako konpromisoa.

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Eginda	
GUZTIRA	2	4	3	7	16
%	%13	%25	%19	%44	%100

1. XEDEA: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea

2003ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Hobekuntza partziala izan da emisio atmosferikoetan, baina airearen kalitate-helburuetatik urrun gaude oraindik.
- Ibai eta itsasoetako uraren kalitatea hobetzen ari da.
- Lurzoru poluituak modu positiboan ari gara berreskuratzen.

1 xedean aurrerapen garrantzitsuak ari gara lortzen, baina, horretarako konpromiso gehienek epeak (2004 eta 2006) direla eta, orain arte lortuta dauden konpromisoen ehuneko txikiena du.

Eraitza zehatzen artean, aipatzekoa da EPER emisio eta iturri poluitzaileen erregistroa modu eraginkorrean ezartzeak dakarren aurrerapena. Erregistro horrek Poluzioaren Prebentzio eta Kontrol Integraturako 16/2002 Legea (**IPPC**) betetzen duten 258 enpresetako 119 enpresari behartzen ditu Lege horren I. eranskinean aipatzen den jardueraren bat garatzera. Hala, modu sistematizatuan, Europako Batasunari jakinarazi behar zaizkion lehentasunezko 50 substantzia poluitzaileen datuak biltzen dira. Iturri poluitzaileei buruzko informazio-eskubidea jendeari bermatzea posible egiteaz gain, poluzioa prebenitzeko eta aurreikusteko estrategia bat egiteko aukera ematen du, emisioak murrizteko. Hori lantzen ari gara eta 2003an bukatuta egon behar zuen. Enpresa txikien kolektiboen kasuan (ez daude arteztarauaren menpe), ekoizpen iraunkorraren estrategia bat prestatzen ari gara.

Informazio publikoaren sistemak Autonomia Erkidegoko **airearen kalitatearen** eguneko datuak ere badiitu, eta, maiatzetik irailera, **ozonoaren** poluzioaren datuak eta aurreikuspena ere bai. Datu horiek publikoaren eskueran daude Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren web orrian.

Betetako beste konpromiso bat **Lurzoruaren Poluzioa Prebenitzeko eta Zuzentzeko Lege Proiektua** aurkeztea izan da, eta dagoeneko Legebiltzarreko izapideak betetzeko prozesuan dago. Lege proiektuaren helburua da lurzoruaren aldaketa eta poluzio berriak agertzea saihestea, kasu larrienei konponbidea ematea eta, azkenik, hereditutako lurzoru poluituei epe luzera edo ertainera konponbidea ematea planifikatzea.

Urari dagokionez, 2000/60 Arteztaraua EAEn ezartzeko egin behar diren lanak egiten ari dira. Gainera, **EAE Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa**, Lurraldearen Plan Sektorialeko bat, egiteko prozesuan dago. Plangintzaren helburua da ura baliabide gisa babestea eta modu iraunkorrean erabiltzea, eskaera –modu egokian kudeatua– betetzeko moduan eta orekari eutsiz uretako, kontinenteetako eta kostaldeko ekosistemen edozein hondaketa prebenitzeko.

Azkenik, eta oraindik GIEIEn ekintzatzat hartzeko zegoela, ez dugu ahaztu behar *Prestige*-k eragindako poluzioaren aurka borroka egiteko behar izan den ahalegin ekonomiko handia. Euskal instituzioei dagokienez (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundia, Donostiako Udala eta kostako beste udal batzuk), 55,2 milioi euroko gastua izan dute joan den abenduaren 31 bitartean.

Hurrengo tauletan 1. xedean ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
1. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	1	–	2	–	3
%	%33	–	%66	–	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
1. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	4	9	8	2	23
%	%17	%39	%35	%9	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
1. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	1	4	1	6
%	–	%16	%66	%16	%100

2. XEDEA: Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua

2003ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Baliabide naturalak: eraginkortasuna hobetzen ari da, baina kontsumoa gero eta handiagoa da.
- Hondakinak: hondakinen sorrera egonkortzen ari da (herrikoak eta arriskutsuak), eta herriko hondakinen gaikako bilketa gorantz doa.

2. xedean, konpromisoen betetze-maila aurreko xedean baino handiagoa izan da, ezarritako konpromiso guztiak hasita baitaude eta erdiak baino gehiago gauzatuta. Bestalde, ez gara azken helburua lortzen ari: *baliabideen kontsumoa ekosistemen karga-abalmena baino handiagoa ez izatea eta hondakin gutxiago sortzea*. Hain zuzen, eraginkortasun-hobekuntza handiak lortzen dira baliabideen erabileran eta hondakinen kudeaketan, baina, tamalez, **ez gara ekonomia desmaterializatzen ari**, eta hori oso kezagarria da kontuan edukita Euskadik Europako MBG (Material Beharrak Guztira) altuenetakoa duela. Horregatik, merkatuko pizgarriei garrantzia eman behar zaie prezioen bidez eta kontsumitzaileak sentsibilizatuz. Ura, energia eta, batez ere, lurzorua dira esku-hartze azkarrena behar duten baliabideak.

Hurrengo tauletan 2. xedean ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
2. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	1	–	5	6
%	–	%17	–	%83	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
2. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	5	–	7	12
%	–	%42	–	%58	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak 😊	Daturik ez	
2. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	2	2	8	1	13
%	%15	%15	%62	%8	%100

3. XEDEA: Natura eta Biodibertsitatea babestea

2003ko Ingurumen Adierazleen Txostena::

- Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren % 20,3 Natura 2000 Europako sarean sartzeko proposamena eginda dago. Gainera, sei hezegune ditugu nazioartean garrantzia duten hezeguneen Ramsar zerrendan.

3. xedean ere positiboa da konpromisoen betetze-maila. Konpromisoen artean, aipatzekoa da Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala eta Itsasertza Babesteko eta Antolatze Lurralde Plan Sektoriala **izapideak egiteko prozesuan** daudela, Gune Natural Babestuen Euskal **Katalogoa** egiten ari garela eta euskal basoen kudeaketa iraunkorra bermatzeko **PEFC basoko ziurtagiriaren sistema** ezarri dela. Bestalde, kezkarria da **paisaiak babesteko dagoen atzerapena** eta Euskal Autonomia Erkidegoko kostako hareatzen, hezeguneen, txilardien eta sasien murrizketa eta zatikatzea. Kostako hezeguneetako eta nekazaritza-sistemetak espezieak eta mehatxupear dauden arrain-espezie kontinentalen populazioa gutxitu egin dira. Arrain aloktonoak, berriz, ugaritu egin dira. Lurralde Antolamenduaren ikuspegi osoa benetan edukitzea oraindik ere lortzeko dugu gaia da.

Hurrengo tauletan 3. xedean ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
3. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	2	1	2	5
%	–	%40	%20	%40	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
3. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	4	14	4	5	27
%	%15	%52	%15	%19	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
3. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	1	1	–	2
%	–	%50	%50	–	%100

4. XEDEA: Lurraldeen arteko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna

2003ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- 2003an, Euskal Autonomia Erkidegoko garraiobide nagusia ibilgailu pribatua izan zen; izan ere, garraiobide guztien artean egindako distantzia osoaren % 73 ibilgailu pribatuz egin zen.

4. xedean, konpromisoen betetzea erdi-mailakoa da, batez ere, **garraioarekin** lotura zuzena dutenena. Garraio Iraunkorraren Gida Plana aurrerapen bat izan arren, mugikortasunaren kudeaketarekin, eta ez azpiegituren eraikuntzarekin bakarrik, lotutako jarduera-planen bidez gauzatzeko dago oraindik. Xede honen garrantziak merezi du arreta berezia jartzea dokumentu honen azken atalean.

Lurralde-antolamenduaren ikuspuntutik, Estrategian kontuan hartutako Lurralde Plan Partzial eta Sektorial guztiak izapideak betetzeko prozesuetan daude. Hala,

- Arabako gune funtzionalerako **Lurralde Plan Partzialak** (Araba erdialdea, Guardia Arabako Errioxa eta Laudio) eta Bizkaiko Bilbo Metropolitarrakoa behin betiko onartzeko daude; Gipuzkoako gune funtzionalerakoak, berriz, hauek daude onartuta: Urola-Kosta, Goierri, Debagoiena eta Debarrenekoa.

• **Lurralde Plan Sektorialei (LPS)** dagokienez:

- Jarduera Ekonomikoen LPSa behin betiko onartzeko dago.
- Etxebizitzako sustapen publikorako LPSaren aurrerapena interesa duten lurralde-administrazio publikoen entzunaldi-fasean dago.
- Basogintzaren LPSari Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendu Batzordeak jakinarazi dio hasierako onespena eman baino lehen.
- Euskadiko portuen LPSak hasierako faseetan jarraitzen du.

Hurrengo tauletan 4. xedean ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
4. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	1	1	–	–	2
%	%50	%50	–	–	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
4. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	2	10	4	3	19
%	%11	%53	%21	%16	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak 😊	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
4. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	1	1	3	2	7
%	%14	%14	%43	%29	%100

5. XEDEA: Klima-aldaketaren eragina

2003ko Ingurumen Adierazleen Txostena:

- Klima-aldaketa. CO₂ emisioak gure helburuetatik urruntzen ari dira.

5. xedean, kezkarria da CO₂-aren emisioak gure **helburuetatik urruntzea**. 2001ean berotegi-efektuko gasen emisioak (BEG) murriztu egin baziren ere, 2002an kantitatea asko handitu zen (+ % 7,6); izan ere, elektrizitatea sortzeko erregai fosilen kontsumoa handitu egin zen (egoera ekonomikoagatik eta klima- eta hidrologia-baldintzengatik) eta errepideko garraioa areagotu egin zen.

Egoera kezkarri horretan, Eusko Jaurlaritzak **Euskadiko Energia Estrategia** berri bat diseinatzen ari da 2010erako. Estrategian apustua egiten da energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko programak energia-kontsumitzaileen sektore guztietan indartzeko eta energia berriztagarrien garapena sustatzeko; hala, Kyotoko Protokoloan ezarritako ingurumen-helburuak lortzen lagunduko du. Baina **garraioaren** eta **etxeko kontsumoaren** alorretan jarduerak falta dira; izan ere, eremu horiek herritarrak inplikatzeko dituzte eskaera-sortzaile gisa, eta haien lankidetzak eta parte-hartze aktiboa eta arduratsua behar dute.

Bestalde, etxebizitza-politikaren iraunkortasun globalean berdin eragiten duten beste alor batzuetan bide onean goaz; adibidez, diseinuan, eraikuntzan, materialen erabileran, energiaren eraginkortasunean eta eraiaketako hondakinen kudeaketan, eraikuntzaren bizi-zikloaren ikuspegi bat ezarritik.

Hurrengo taulatan 5. xedean 2006rako ezarritako konpromisoetan egin diren aurrerapenen laburpena ikus daiteke, Estrategiak ez baitu ezartzen 2003a amaitu baino lehen bete beharreko konpromisorik.

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
5. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	6	2	3	11
%	–	%55	%18	%27	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
5. XEDEKO KONPROMISOAK GUZTIRA	–	–	1	–	1
%	–	–	%100	–	%100

Konpromisoak betetzea: (ii) ezinbesteko 5 baldintza

EZINBESTEKO 1. BALDINTZA: Ingurumen-aldagaiak beste politika-alor batzuetan kontuan hartzea

Ezinbesteko 1. baldintzaren alorrean, **ingurumen-aldagaia** adierazpenetatik harantzago ere ari da **sartzen**, nahiz eta prozesu motela eta garestia izan. Urrats garrantzitsu gisa, hauek aipa daitezke: joan den irailaren 5ean 183/2003 Dekretua argitaratzea, uztailaren 27koa, **Ingurumen-Inpaktuaren Baterako Ebaluazioa (IIEB)** egiteko prozedura arautzen duena, eta aurrerago aipatu ditugun eta lantzen ari diren Energia Estrategia, Kontsumo Iraunkorrerako Plana eta Tokiko Agenda 21ak.

IIEB ezinbesteko tresna da ingurumen-alderdiak sektoreko eta lurraldeko politiketan sartzeko. Prozedura hori onartu eta gero, lurraldean eta ingurumenean eragina duten Euskal Autonomia Erkidegoko **plan eta programa** guztiak ebaluatu egin behar dira zentzuzko hainbat aukeraren artean egokiena aukeratzeko, ingurumenaren babes-maila on bat lortzeko eta baliabide naturalen erabilera iraunkorra lortzeko.

Prozedura hori aplikatzeak duen eragina oso garrantzitsua da, hainbat sektore garrantzitsutako plan eta programei eragiten baitie; ingurumena, garraioa, lurralde-antolaketa, lurzorua eta baliabide naturalen erabilera, energia, turismoa, nekazaritza eta abar. Prozedura zorrozki aplikatzea ezinbestekoa da Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak arrakasta izan dezan.

Hurrengo tauletan 1. baldintzan ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 1. B. K. GUZTIRA	–	–	1	3	4
%	–	–	%25	%75	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 1. B. K. GUZTIRA	–	2	1	3	6
%	–	%33	%17	%50	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak 😊	Daturik ez	
EZINBESTEKO 1. B. K. GUZTIRA	1	–	1	–	2
%	%50	–	%50	–	%100

EZINBESTEKO 2. BALDINTZA: Indarrean dagoen legeria hobetzea eta aplikatzea

Indarrean dagoen **legeria hobetzeari** eta aplikatzeari dagokionez, aipatzekoak diren, beste egiteko batzuekin batera, adibidez, Industriaren ikuskaritza-plana abian jartzea eta **Lurzorua**ren **Poluzioa Prebentzeko eta Zuzentzeko Lege Proiektua** aurkeztea. Azpimarratu beharrekoa da hitzarmenak lortzeko premia larria dagoela baliabide kritikoei (**Uren Legea**, adibidez) eta/edo oso urriei (**Hirigintza Legea**, esaterako) eragiten dieten funtsezko beste lege batzuk nagusitzeko.

Legeen alorraz gain, aurrerapenak egin behar dira **erakundeen arteko lankidetzan** –ikuspegi orokorreko tresna egokiak falta dira– eta **lankidetzak publikoaren eta pribatuaren artean**.

Azken puntu horri dagokionez, esan beharra dago **borondatezko hitzarmenak** egin direla poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuei (IIPC) buruzko 61/96/EE Arteztarauak eragiten dien euskal industria-sektoreekin. Orain arte altzairu-, zementu- eta kimika-sektoreekin sinatu dira hitzarmenak. Hitzarmenetan parte hartzen duten erakundeek, besteak beste, konpromiso hauek dituzte: ingurumenarekiko jarrera etengabe hobetzea indarrean dagoen ingurumen-legeriatik harantzago; ingurumena kudeatzeko dituzten politikak, programak eta sistemak gainerako industria-sarearekin partekatzea eta enpresan interesa duten alderdi guztiekin (langileak, tokiko agintariak, hornitzaileak, etab.) eztabaida irekiak egitea.

Taula hauetan 2. baldintzan ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 2. B. K. GUZTIRA	2	3	1	1	7
%	%29	%43	%14	%14	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 2. B. K. GUZTIRA	2	6	5	2	15
%	%13	%40	%33	%13	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak 😊	Daturik ez	
EZINBESTEKO 2. B. K. GUZTIRA	–	1	–	–	1
%	–	%100	–	–	%100

EZINBESTEKO 3. BALDINTZA: Ingurumena merkatuan lehiakortasun-faktore gisa sartzea

Merkatuko tresnak ingurumenaren alde erabiltzeari dagokionez (Ezinbesteko 3. baldintza), emaitzak positiboak dira; izan ere, enpresaren sektoreak partaidetza onargarria lortu du sinatutako **borondatezko hitzarmenen** bidez –aurreko puntuan aipatutakoak–, ingurumena kudeatzeko sistemen **ziurtagiri**-kopuru handia lortu da eta bestelako borondateko ekimenak egin dira, adibidez, **iraunkortasunari buruzko memoriak**, 2006rako proposatutako helburuen bidean kokatzen gaituztenak. Ziurtagirien alorrean, UNE 150301 onartu berri da; IHOBek Estatu osorako bultzatu duen ekodiseinuko araua da, porrot egindako Europako etiketaren ordekoa. Dagoeneko euskal enpresa batzuek badute ziurtagiria.

Urrats garrantzitsuak ematen ari gara ingurumen-kostuak barneratzeko; hainbat sailen diru-laguntzen politika aztertu da haien irizpideak GIEI Eren ildoekin bat egiteko. Hala, % 30erainoko zerga-kenkariak lor ditzaketen **teknologia garbien** zerrenda adostu da (EHAAn argitaratua 2004ko maiatzaren 14ean), eta energiaren eta ingurumenaren alorreko **diru-laguntzak** berrikusi dira.

Taula hauetan 3. baldintzan ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Avanzados	Bukatuak	
EZINBESTEKO 3. B. K. GUZTIRA	–	–	–	1	1
%	–	–	–	%100	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 3. B. K. GUZTIRA	–	3	–	1	4
%	–	%75	–	%25	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☹	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
EZINBESTEKO 3. B. K. GUZTIRA	–	1	3	–	4
%	–	%25	%75	–	%100

EZINBESTEKO 4. BALDINTZA: Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta haiek ere erantzukizuna hartzea eta beraien jokabideak iraunkortasun handiagoari begira aldatzea

Herritarrak gaitzeari eta jokabideak iraunkortasun handiagoari begira aldatzeari dagokionez, arrakastarik handiena tokiko agenda 21ak ugaritu izana da, euskal udalerriek –jendearengandik hurbilen dagoen administrazio-maila– garapen iraunkorrerako duten loturaren isla. Aipagarriak dira, halaber, prozesu hori hezkuntza-sektorerara zabaldu izana, **Eskolako Agendak 21**en bitartez, eta 2004an sustatzen ari diren **mu- gikortasun iraunkorreko planak**. Horrez gain, aipatzekoa da **GAP Proiektuaren (Global Action Plan)** babesean garatutako esperientzia pilotua; Nazio Batuen Ingurumen Programak sustatutako ekimena da, familiak ingurumenari buruz sentsibilizatu eta ekintzara bultzatzeko. 2003an Urdaibai eta Debarrena eskualdeetako **4.250** etxebizitzak hartu zuten parte GAP proiektuan.

Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail eta sozietate publikok egiten duten **informazio-politikari** eta **kan- painei** esker, halaber, herritarrak gehiago kontzientziatzen ari dira, nahiz eta oraindik ere erronka bat izan zu- zenean herritarrengana iristeko formula berriak topatzea. Ingurumenaren alorrean herritarrak informatzeko eta komunikatzeko eta haiek parte hartzeko **estrategiaren** eta **ingurumen-hezkuntzaren** strategiaren helburua –biak unean lantzen ari dira– euskal gizartea informatzen eta mobilizatzen laguntzea da, 2002-2020ko Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategian identifikatutako xede handiak ezagutu eta bere egin ditzaten eta ingurumenaren aldetik iraunkorra den Euskadi lortzeko aktiboki esku har dezaten.

Azkenik, Administrazioa bera gaitzeko ikuspuntutik, aipatzekoa da abian jarri dela Euskal Autonomia Er- kidegoko Administrazio Publikoaren 2003-2006ko **Ingurumenean Trebatzeko Plana**, Lurralde Antolamen- du eta Ingurumen Sailak eta HAEEk sustatua.

Taula hauetan 4. baldintzan ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:

2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 4. B. K. GUZTIRA	3	1	2	3	9
%	%33	%11	%22	%33	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 4. B. K. GUZTIRA	3	6	3	5	17
%	%18	%35	%18	%29	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
EZINBESTEKO 4. B. K. GUZTIRA	1	–	2	–	3
%	%33	–	%67	–	%100

EZINBESTEKO 5. BALDINTZA: Ingurumen-alarreko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza

Ingurumenari buruzko Ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzaren alorrean, ingurumen-teknologietan oinarritzen diren edo ingurumen-berrikuntzako jardueretan, patenteetan eta abarretan parte hartzen duten enpresa gutxi sortu dira. Hala ere, efektuak detektatzeko, epe luzeagoak behar dira. Dena den, baliabide gehiago bideratu nahi izaten dira ingurumenari buruzko ikerketa sustatzeko.

Bestalde, ingurumenak euskal herritarren osasunean dituen eraginei aplikatutako ikerketa oso garrantzitsua da, eta, horregatik, ezinbestekoa da dinamismo handiagoaz sustatzea ikerketa-programak, adibidez, APHEIS Europako Programaren barruan (Atmosferaren poluzioa eta Osasuna: Europako informazio-sistema bat) egiten ari direnak bezalakoak.

Taula hauetan 5. baldintzan ezarritako konpromisoetan egindako aurrerapenen laburpena ikus daiteke:



2003rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 5. B. K. GUZTIRA	–	2	–	–	2
%	–	%100	–	–	%100

2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Guztira
	Hasteko	Hasita	Aurreratuta	Bukatuak	
EZINBESTEKO 5. B. K. GUZTIRA	–	3	–	–	3
%	–	%100	–	–	%100

2006rako konpromiso KUANTITATIBOAK	Consecución previsible				Guztira
	Zailak ☹	Egin litezkeenak ☺	Egin daitezkeenak 😊	Daturik ez	
EZINBESTEKO 5. B. K. GUZTIRA	3	1	1	–	5
%	%60	%20	%20	–	%100

2003ko txosteneko gomendioak betetzea

Orain arte egindakoa ikusirik, esan daiteke, batetik, 2003ko iraunkortasunaren lehen txostenaren ondorioei eta gomendioei jarraitu zaiela eta, bestetik, 2005erako ere balio dutela gomendio horiek.

Lehen ondorioak azpimarratzen zuen helburuak zein neurritaraino betetzen ziren ikusteko **segimendua egin eta ebaluatzeko bideak sakondu** behar zirela, bigarren txosten honetan egiten den bezala. Ingurumenari buruzko informazio-sisteman egin diren hobekuntzak gorabehera, konpromiso kuantitatibo batzuetarako ez dira oraindik definitu ebaluatu ahal izateko beharrezkoak diren adierazleak.

Bigarren ondorioak EAEko ingurumenaren hobekuntza zuen hizpide. Ukaezina izan da hobekuntza hori 2003an, baina, hala ere, **ingurumenarentzat kaltegarriak diren zenbait joerek bere horretan diraute baliabide naturalen kontsumoan** (airea, materialak, energia eta lurzorua), sortutako hondakin-kopuruan (hiri-hondakinak, batik bat), **berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioetan eta mugikortasunean**.

Hirugarren ondorioak **ingurumen-iraunkortasuna sektore-politiketan barne hartzeko prozesua sakontzeko beharra** aipatzen zuen. Arlo horretan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira 2003an **arau** mailan. Nolanahi ere, onartu beharra dago oraindik asko falta dela **erakundeen arteko koordinazio eraginkorra** martxan jartzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da formula berriak diseinatzea ingurumena hobetzeko neurri bateratuak hartzeko erakunde guztien artean.



Laugarren ondorioak **herritarren konpromiso handiagoa** lortzeko beharra azpimarratzen zuen; horretarako, komunikazio-sistemak eta herritarrak mobilizatzekoak hobetzea eta gardentasuna, koherentzia, eraginkortasuna, kontrola eta parte-hartze publikoa areagotuko duten gobernu-era berriak ezartzea aipatzen ziren. Lehen esan bezala, oso nabarmen hobetu da informazio-eta komunikazio-sistema; aldiz, ez da ildo horretan aurrerapauso nabarmenak ekarriko lituzkeen aldaketa garbirik ikusten gobernatzeko eran.

2004rako ezarritako erronka guztiei egin zaie aurre, horietako batzuk aurrerratuagoak badaude ere. Hauek dira erronka horiek:

- Euskal energia-estrategia
- Kontsumo iraunkorrari buruzko arauak
- Eraikuntza iraunkorrari buruzko arauak
- Zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioa murrizteko estrategia
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen prebentziorako eta kudeaketarako plana
- Biodibertsitateari buruzko trebakuntza, hezkuntza eta sentsibilizaziorako ingurumen-plan estrategikoa
- EAEko barruko arroen plangintza hidrologikoa
- Lurzorua Babesteko Legea (Legebiltzarreko izapide-prozesuan) eta Lurzoru Poluituen Plana

Azkenik, ingurumen-gaietarako garapen-lankidetzak ere sendotu da, **nrg4sd sarearen** bidez egin diren ekintzekin eta hitzarmenekin, batik bat, Brasilen, txilen eta Indonesian.

Bost erronka 2005erako

Denborak aurrera egin ahala, ingurumenari buruzko eztabaida gaindituta dagoela esan daiteke, argi baitago **ingurumenaren kudeaketa soila ez dela nahikoa** ingurumen-iraunkortasuna lortzeko; nahitaezkoa da produkzio- eta kontsumo-ereduetan aldaketa handiak egitea. Ziur gara Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (GJEIE) eta egun martxan dagoen Europako Estrategia 2006an (Ingurumeneko Esparru Programa) berriz aztertzeak ez duela ekarriko xede eta helburu berriak ezarri beharra, baizik eta ezarrita dauden helburu horietarako baliabide eta ekintza eraginkorragoak identifikatzea eta aplikatzea.

Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumo- eta produkzio-ereduek eragiten duten **aztarna ekologikoa** nabarmena da oso, eta, ondorioz, Lurreko biztanle guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen kontsumo-ohitura berak izango balituzte, Lurraren gaur egungo azalera produktibo bera izango luketen 2,5 planeta beharko lirateke. Euskal Autonomia Erkidegoan ez badugu iraunkortasuna ardatz gisa hartzen eta proiektuak hazkuntza ekonomikoari soilik begira garatzen baditugu, aztarna ekologiko hori datozen 15 urteetan % 23 hazteko arriskua dago.

1. Hazkuntza ekonomikoa baliabide naturalen kontsumoarekin ez lotzeko aurrerapausoak ematea

Gaur egungo gure kontsumo- eta produkzio-ereduak ez direla iraunkorrak eta egokitu egin behar direla esan nahi du horrek; alegia, teknologia berriak gero eta gehiago erabili eta gizartearen portaera-ereduak aldatzeko neurriak hartu behar dira. Europako herriei eta mundu garatu osoarekin batera dihardugu lan horretan. Aitzitik, Hirugarren Munduko herrietan handitu egin behar da kontsumo-maila, herri horietako biztanle gehienak egun ez duten gutxieneko mailara irits daitezen.

Hori dela eta, nahitaezkoa da hazkuntza ekonomikoa baliabide naturalen ustiaketarekin eta hondakinak sortzearekin ez lotzea; horixe da, hain zuzen ere, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren 2. helburua, eta horixe da ingurumen-iraunkortasuna lortzeko bidean egin diren aurrerapausoak ebaluatzeko irizpide nagusia.

2. Merkatuko bitartekoak sustatzea

Jakin, badakigu, merkatuak ez diela behar adina laguntzen bizi-ziklo integrala kontuan hartzen duten diseinu ekologikodun produktuei, askotan produktu garestiagoak baitira. Hori kontuan izanik, Administrazioak hauek egin behar ditu beldurrik gabe: zerga-baliabideak erabili ingurumen kostuak barne hartzeko; laguntza eman I+G+Bari produktuen garapena errazteko; informazio ekologikoa sustatu, kontsumitzaileak eta kontsumitzaileen erosteko ahalmena mobilizatzeke, **erosketa berdea** inolako konplexurik gabe onartzeko eta, horrela, eskaria sustatzeko.

3. Mugikortasunaren eskaria bideratzea eta garraiobide iraunkorrak garatzea

Hazkunde ekonomikoaren eta baliabide naturalen ustiaketaren arteko **bereizketaz** gain (denbora-epe luzea behar da arazo hori konpontzeko), gaur egun Euskadin ditugun ingurumen-arazorik larrienak –tamainagatik eta konpontzeko dauden zailtasunengatik- hauek dira: **mugikortasunaren** neurri gabeko hazkuntza eta lur-zoruaren erabileren plangintza, lur horien gero eta okupazio handiagoa saihesteko edo mugatzeko (artifizializazioa). Administrazioak aurrera egin behar du bi eremu horietan, informazio egokia jaso duten euskal herritarren laguntzarekin.

Mugikortasuna oso nabarmen ari da hazten, aurreko urteekin alderatuz gero, EAEko azken datuek diotenaren arabera. Gainera, mugikortasuna **ibilgailu pribatuaren** bidez gauzatzen da neurri handi batean. Izan ere, egiten diren distantzien % 73 garraiobide-mota horrekin egiten dira. Egoera hori kontuan izanik, soluzioa ez da azpiegitura gehiago eraikitzea soilik, behin eta berriz gainezka egiten baitute mugikortasuna hazi ahala. Pertsonen mugikortasuna neurri handi batean ibilgailu pribatuarekin gauzatzen dela eta salgaiak garraiatzeko ia errepideak bakarrik erabiltzen direla kontuan izanik (trena eta itsasontziak ez dira ia erabiltzen), nahitaezkoa da ekimen publiko handiagoa eta kudeaketa hobea.

Horretaz gain, ibilgailuen trafikoak eragiten duen **poluzio** atmosferikoa eta hirigune gehienek dituzten **zarata**-arazoak gero eta gehiago ari dira hondatzen hirietako bizi-kalitatea. Bestalde, ezin ahaztuko ditugu gure errepideetako **auto-pilaketak** eta **istripuak**, senitartekoen oinazea, osasun-arazoak eta osasun-sistamarako eta trafikoaren segurtasun-sistamarako gastuak eragiten dituztenak.

Jaurilaritzak bultzatutako Garraio Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Gidatzailean (2002ko azaroa) jasotako helburuak bat datoz Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian jasotako konpromisoekin. Eusko Trenbideak-en Plan Estrategikoak **trena sustatu nahi du salgaiak garraiatzeko** tren-merkatu liberalizatuan. Nahitaezkoa eta premiazkoa da **euskal trenbide-sarea berritzea**, produkzio-zentro, portu eta hirigune nagusiekin lotzea, Europaz haraindiko trenbide-sareekin lotzea eta **garraio-modalitate desberdinak konbinatzea**. Baina, diseinu eta azpiegitura berriak behar dituzten ekintzekin batera (esate baterako, euskal Ya eta hiriko eta eskualdeko tranbiak), beharrezkoa da aldi berean **salgaien** garraioaren **kudeaketa logistikoa** hobetzea, eta Administrazioak erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren sustatu eta bultzatu behar du horretarako.

Bestalde, Plan Gidatzaileak **mugikortasunaren eskaria kudeatzea** ere jasotzen du helburuen artean (enpresa handiek edo industrien eta zerbitzu-enpresen pilaketak edo, oro har, herritarrek eragindako mugikortasuna). Kudeaketa horretan zeresan handia dute foru-aldundiek eta udalek ekimen pribatuarekin hitzarmenak sustatzeko. Itzaropentsu egoteko arrazoiak ditugu; izan ere, 2004ko lehen hilabeteetan hainbat ekimen jarri dira martxan eskualdeetako eta udalerrietako mugikortasunari buruzko plan bateratuak egiteko.

Bestalde, lehengoarekin lotuta dagoen beste erronka bat ere badu EAEk: **sektore- eta lurralde-plangintzen arteko koordinazioa eta garraio-politika**: hiriguneetatik kanpo dauden ekipamenduek (industria-, merkataritza- edo zerbitzu-ekipamenduek) mugikortasun-eskari handia eragiten dute eta kolokan uzten dute ohiko hiriguneen bizitasuna eta bideragarritasuna. Hirien egitura zabaltzeko eta jarduerak gero eta gehiago banatzeko joerak (etxea, lana, erosketak) oso nabarmen gehitu du ibilgailuen erabilera, eta, horren ondorioz, hazi egin dira energiaren kontsumoa eta emisioak.

4. Urbanizatu gabeko lurzoruaren okupazioa mugatzea

Lurzorua ondasun urria da oso Euskadiko leku askotan, eta **urbanizatu gabeko lurzoru gisa zaintzea** komeni da. Baina etxebizitzak eta produkzioarako nahiz komunikazioarako azpiegiturak egiteko gero eta eskari handiagoak mehatxu egiten dio etengabe lurzoruari. Eskari horietako batzuk nahitaezkoak izan arren, beharrezkoa da lurzoru berrien okupazioa saihestu edo mugatuko duten beste alternatiba batzuk aztertzea. Lehenetasuna eman behar zaio erabiltzen ez den lurzoru optimizatzeari eta lurzoruaren erabilera posibleak era egokian kudeatzeari.

Etxebizitzak direla eta, beharrezkoa da egungo etxebizitzak hobeto kudeatzea, hiriak eta herriak birgaituz, hiriguneak gero eta gehiago zabaltzeko prozesua geldiarazteko. Logikoagoa da eraikigarritasun-bolumena handitzea, bazter guztietan dentsitate baxuko eraikuntzak egitea baino, horiek askoz lurzoru gehiago betetzen baitute.

Lurralde Plan Partzialei eta Lurralde Plan Sektorialei esker, lurzoruaren erabilerei buruzko ikuspegi bateratua, behar bezala hierarkizatua, zabaltzen ari da, eta, horrela, lekuan lekuko plangintzen ikuspegi lokalisten arriskua saihesten da. Dena dela, Jaurlaritzak ondotxo daki beharrezkoa dela **erabakiak hartzeko** prozedurak sendotzea eta horretarako nahitaezkoa dela interes-taldeen parte-hartzea hobetuko duten baliabide berriak erabiltzea.

5. Gobernatzeko sistemak hobetzea

Premia handikoa da **gobernatzeko sistemak** hobetzea, **parte hartzeko** baliabideak jarritz herritarrentzat funtsezkoak diren gaiak aztertzen hasten den unetik, betiere gardentasunez eta hitzarmenak eginez Administrazioaren eta proiektu jakin baten eragina jasaten duten taldeen artean (edo Administrazioaren eta produkzio-sektoreen artean, adibidez), azpiegituren plangintzarekin loturik dauden gaietan (saihestu egin behar dira informazio-saio soilak edo aurretik hartutako erabakiak onartzeko saioak, bestela sinesgarritasuna galtzen baitu prozesuak). Baliabide horiek informazioa eskuratzeko bidea erraztu eta eztabaidatzen ari diren gaiak erraz ulertzen lagundu behar dute: parte-hartzea sustatu eta lortzeko bide berria.

Konpondu beharreko arazoetako bat **erabakia zer eremutan hartu behar den erabakitzea** da (eta, horren arabera, parte-hartzearen eremua ere definitzea), ikuspegi lokalistegiak edo interesatuegiak saihesteko. Halaber, larria da liskarrak (interes-liskarrak) konpontzeko metodo berriak erabiltzeko premia.

Azken oharrak

Azken ohar hauek egin nahi ditugu, ondorio gisa:

- Lebena:** Aurrera egin dugu Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian jasotako konpromiso programatiko eta kuantitatiboetan, estrategia hori indarrean dagoen bigarren urtean. Hala ere, urrun daude oraindik lortu beharreko helburuak. Hori dela eta, erronkarik premiazkoenak identifikatu ditugu.
- Bigarrenena:** Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren egoera zertxobait hobetu bada ere, ez gara aurrerapauso nabarmenik ematen ari ekonomiaren desmaterializazioan edo kontsumo-mailaren murrizketan (energia, ura, baliabide naturalak, lurzorua), ez eta hondakinen murrizketan ere.
- Hirugarrena:** Bestalde, garraio kolektiboa hobetu den arren, ez da ikusten etorkizunean ibilgailu pribatuak atzera egingo duela adieraten duen aztarnarik, ez eta garraiobideen erabilera orekatuagoaren eta ingurumena zaintzeko egokiagoaren aldeko aztarnarik ere.
- Laugarrena:** Hori guztia kontuan izanik, nahitaezkoa da berrikuntzen erritmoa biziagotzea eta Estrategian jasotako helburuak lortzeko ahalegina areagotzea hauen bidez: (i) ingurumen-helburuak eta -irizpideak sektore-politika guztietan **integratzea**; (ii) proposamenak **aplikatzea**, erakunde publikoen arteko koordinazioa eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa hobetzea, **hitzetatik ekintzetara igarota**; (iii) berrikuntza sustatzea baliabideetan eta ekintzetan; eta (iv) informazioaren sorrera eta hedatzea sustatzea, herritarren konpromisoa areagotzeko.
- Bosgarrena:** Ingurumena zaintzea eta iraunkortasuna sustatzea ez dira gizakien garapenerako mugak, bizi-kalitatea betiko hobetzeko aukera paregabeak baizik. Beraz, negozio-aukera berriak eskaintzen dituzte eta sustatu egin behar dira, horretarako inguru egokia sortuz. Lan horretan zeresan handia dute administrazio publikoek, batetik, gaur egun sustatzeko dauden baliabideak zuhurtziaz erabiltzeko eta, bestetik, herritarrekiko konplizitatea ezartzeko, akordio eta hitzarmen sinesgarriak eginez informazioaren, gardentasunaren eta erabakitzeko prozesuetan parte hartzearen bidez.